Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko martxoaren 5a, ostirala — 43 — Viernes, a 5 de marzo de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AIZARNAZABALGO UDALA

*Iragarkia*

Udalaren Osoko Bilkurak hasieran onartu zuen, 2020ko irailaren 30ean egindako ohiko bilkuran, «Aizarnazabalngo Udalak emandako diru-laguntzen emakida arautzeko udal-ordenantza», eta espedientea jendaurrean jarri da 2020ko urriaren 7tik 30 eguneko epean, ez da erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu, eta, beraz, behin betiko onetsitzat jotzen da eta osorik argitaratzen da, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta aipatutako Ordenantza indarrean jarriko da, 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igaro ondoren.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik bi hilabeteko epean.

Aizarnazabal, 2021eko otsailaren 15a.—Mari Carmen Arregi Agirre, alkatea. (1303)

*Aizarnazabalgo udalaren diru laguntzak arautzeko ordenantza.*

ZIOEN AZALPENA

Diru laguntzen bidez gauzatzen diren ekintzek eta proiektuek garrantzi handia dute bai herrietako bizitzan bai ekonomian. Besteak beste, diru laguntzen bidez babesten dira gaur egun kultura, euskara, kirola, gizarte zerbitzuak, gazteria, ingurumena eta landa garapena, hezkuntza, parte-hartzea, hirigintza, etxebizitza eta berdintasunarekin zerikusia duten hamarnaka ekintza.

Udalek emandako diru laguntzek interes orokorrean duten eragina aintzat hartuta, ezinbestekoa da Aizarnazabalgo Udalaren eta laguntza horien onuradunen arteko harremanak egituratzeko edota arautzeko zuzenbide-esparrua ezartzea eta horren gaineko informazioa behar beste zabaltzea, balizko onuradunek horren berri izan dezaten.

Helburu hori oinarritzat hartuta, zenbait arlo arautzen dira Aizarnazabalgo Udalaren diru laguntzak emateko ordenantza orokor honetan: diru laguntza emaileen eta onuradunen betebeharrak, diru laguntza motak, deialdiak arautzeko oinarrien gutxieneko edukia, diru laguntzak esleitzeko nahiz laguntzak itzultzeko prozedurak eta berrespen-erregimena.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 129. artikuluan ezartzen du Administrazioak, erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, erregulazio onaren printzipioei lotuko zaizkiela.

Aipatutako printzipioek, Udalaren sustapen-jarduera eta diru laguntzak arautzeko Ordenantzari aplikatuta, emaitza hau ematen dute:

## AYUNTAMIENTO DE AIZARNAZABAL

*Anuncio*

Aprobada inicialmente por el Pleno del Ayuntamiento, en Sesión Ordinaria celebrada el día 30 de septiembre de 2020, la «Ordenanza Municipal para regular la concesión de subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Aizarnazabaln», y habiéndose sometido el expediente a información pública durante el plazo de 30 días a contar desde el 7 de octubre de 2020, no se ha presentado reclamación u observación alguna a la misma, por lo que se entiende aprobada definitivamente y se publica íntegramente a efectos de dar cumplimiento a lo preceptuado en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local, entrando en vigor la mencionada Ordenanza, una vez transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente hábil a la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Aizarnazabal, a 15 de febrero de 2021.—La alcaldesa, Mari Carmen Arregi Agirre. (1303)

*Ordenanza reguladora de las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Aizarnazabal.*

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Las actividades y proyectos que se desarrollan mediante subvenciones tienen una gran trascendencia tanto en la vida como en la economía de los municipios. Actualmente, se apoyan mediante subvenciones decenas de actividades en materia de cultura, euskera, deporte, servicios sociales, juventud, medio ambiente y desarrollo rural, educación, participación, urbanismo, vivienda e igualdad.

Su incidencia en la consecución del interés general hace preciso establecer el marco jurídico que articule y regule las relaciones entre el Ayuntamiento de Aizarnazabal y las personas perceptoras, dándole la publicidad necesaria que asegure su conocimiento para quien se pueda beneficiar eventualmente.

Con esta finalidad se regulan en esta ordenanza general reguladora de las subvenciones del Ayuntamiento de Aizarnazabal las obligaciones del órgano concedente y de la parte beneficiaria, los distintos tipos de subvenciones, el contenido mínimo de las bases reguladoras de las convocatorias, el procedimiento para la adjudicación y para el reintegro de las ayudas, y el régimen sancionador.

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, establece en su artículo 129 que las Administraciones se sujetarán, en el ejercicio de su potestad reglamentaria, a los principios de buena regulación.

Los citados principios, aplicados a la ordenanza de regulación de la actividad de fomento y de las subvenciones del Ayuntamiento, ofrecen el siguiente resultado:

EK\CV GAO-I-2021-01299

— Premia: diru laguntzei buruzko araudia erregulatzeko exijentziaz gain, araugintza-ekimen hau oinarritzen den interes orokorreko arrazoia da diru laguntzek osatzen dituzten gastu publikoaren modalitatearen lerro guztiak berdin erregulatzea eta baliabide publikoen kudeaketa hobea egitea.

— Efikazia: araugintza-ekimena da tresnarik egokiena lortu nahi diren xedeetarako, eta ez da aukerarik izango beste neurri ez-erregulatzaile batzuk ezartzeko.

— Segurtasun juridikoa: kontua da araugintza-esparru egonkor, aurresangarri, integratu, argi eta segurtasuneko bat sortzea, erraztasunak emango dituena ezagutzarako eta ulermenerako eta, ondorioz, pertsonek eta elkarteek erabakiak hartzeko.

— Proportzionaltasuna: Ordenantzaren edukia bat dator diru laguntzen inguruko araudi sektorialean aurreikusitako eskubideak eta betebeharrak baliatzeko baldintzekin.

— Gardentasuna: jasotzaileen parte-hartze aktiboa bultzatzeko, horretarako ezarrita dauden aurreikuspen legal guztiak jarriko dira martxan. Hala nola, aurretiko kontsulten, entzunaldiaren eta etengabeko kontsultaren tramite berria.

— Efizientzia: Ordenantza honen helburua da udal tramiteak arautzea eta baliabideen kudeaketa arrazionalizatzea.

Erregulazio onaren printzipioak honela justifikatu ondoren, esan beharra dago Ordenantzak ez duela eragiten Udalaren gastuen eta diru-sarreren egoeran, eta, nolanahi ere, aurrekontu-egonkortasun eta finantza-jasangarritasun printzipioak betetzen dituela.

TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Aplikazioaren helburua, definizioa eta esparrua.*

Ordenantza honen helburua da Aizarnazabalgo Udalak ematen dituen diru laguntzen irizpideak eta emakida-prozedurak finkatzea, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko erregelamenduak ezartzen dutenaren arabera.

Ordenantza honen ondorioetarako, diru laguntzaren definizioa da Udalak pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko edozein xedapen, eta baldintza hauek bete behar ditu:

— Entrega onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.

— Entrega helburu zehatz bati, proiektu bat garatzeari, jarduera bat egiteari, portaera berezi bat hartzeari lotuta egotea, egindakoak zein garatu beharrekoak izan, edo hainbat egoera aldi berean gertatzea, eta onuradunak ezarri diren betebehar material eta formalak bete beharko ditu.

— Diruz lagundutako proiektuak, ekintzak, jokaerak edo egoerak onura publiko edo herri-intereseko jarduera bat sustatzea edo xede publiko bat sustatzea helburu izatea.

Ordenantza Orokor hau ez da aplikatuko kasu hauetan:

— Aplikatzekoa den zerga- edo sektore-araudiak arautuko diru laguntza inpropioak (hobariak, salbuespenak).

— Zerbitzuaren funtzionamenduaren kontraprestazio gisa jasotzen dituen zerbitzu publiko baten emakidadun bati emandako diru laguntzak.

— Udalak bitarteko soil gisa jokatzen dueneko beste administrazio batzuek emandako diru laguntzak.

— Necesidad: además de la exigencia de una regulación en la normativa sobre subvenciones, la razón de interés general en que se basa esta iniciativa reglamentaria lo constituye el someter a una misma regulación todas las líneas de la modalidad de gasto público que constituyen las subvenciones y otorgar una mejor gestión de los recursos públicos como fin inmediato.

— Eficacia: la iniciativa reglamentaria es el instrumento más adecuado para los fines perseguidos sin que quepan otras medidas no regulatorias.

— Seguridad jurídica: se trata de generar un marco normativo estable, predecible, claro y de certidumbre que facilite la toma de decisiones de personas y asociaciones.

— Proporcionalidad: el contenido de la ordenanza es acorde con las condiciones de ejercicio de derechos y deberes previstas en la normativa sectorial de la materia subvencional.

— Transparencia: para contar con la participación activa de las personas destinatarias se pondrán en marcha todas y cuantas previsiones legales se hallan establecidas a tal fin. Así el novedoso trámite de consultas previas, audiencia a interesados e interesadas, y consulta continua.

— Eficiencia: es objetivo de la presente ordenanza la regulación de trámites y la racionalización de la gestión de los recursos municipales.

Justificado así el cumplimiento de los principios de buena regulación, resta decir que la ordenanza no incide por sí misma en el estado de gastos e ingresos de la Corporación y que se supedita en todo caso al cumplimiento de los principios de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto, definición y ámbito de aplicación.*

La presente ordenanza tiene por objeto regular y fijar los criterios y el procedimiento de concesión de subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Aizarnazabal al amparo de lo que establece la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba su reglamento de desarrollo.

A los efectos de la presente ordenanza, se entiende por subvención toda disposición dineraria que realice el Ayuntamiento a favor de personas públicas o privadas y que cumpla los siguientes requisitos:

— Que la entrega se realice sin contraprestación directa de las personas beneficiarias.

— Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo la persona beneficiaria cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubiera establecido.

— Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública de interés local.

La presente ordenanza no será de aplicación en los siguientes casos:

— Subvenciones impropias reguladas por la legislación tributaria o sectorial aplicable (bonificaciones, exenciones).

— Subvenciones otorgadas a la entidad concesionaria de un servicio público que las recibe como contraprestación del funcionamiento del Servicio.

— Subvenciones concedidas por otras Administraciones en las que el Ayuntamiento actúe como simple intermediario.

— Udalaren ekarpenak erakunde hartzaileen jarduerak modu globalean diruz laguntzeko: erakunde autonomoak; enpresa-erakunde publikoak; partzuergoak; mankomunitateak; fundazioak; elkarteak, etab., non Udalak ordezkapena duen eta urtero laguntza ekonomikoak egiten dituen horien aurrekontuak diruz laguntzeko.

— Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 5. xedapen gehigarrian (Udalen Federazioa eta Elkartea) aipatzen dituen elkarteen aldeko diru laguntzak.

— Korporazioan ordezkatutako talde politikoen funtzionamendu-gastuei erantzuteko diru laguntzak. Honekin kanpo geratzen dira alderdi eta zinegotziei ekarpenak.

Bestalde, diru laguntzen esparrua udaleko sail eta arlo guztietara zabaldu liteke, besteak beste, kultura, euskara, kirola, gizarte zerbitzuak, gazteria, ingurumena eta landa garapena, hezkuntza, parte-hartzea, hirigintza, etxebizitza, berdintasuna, eta abar.

*2. artikulua. Aplikatzekoa den araudia.*

Diru laguntzen esleitzea eta emailearen eta erakunde onuradunaren arteko erlazio juridikoa bai udal Ordenantza honek bai diru laguntzen lerro bakoitzaren oinarri bereziak eta emakidaren unean indarrean dagoen gainerako araudiak arautuko dituzte.

Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), horren garapenerako Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua, uztailaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aplikatuko dira, tartean 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 30ekoa, emakume eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerakoa eta 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

*3. artikulua. Diru laguntzen izaera.*

Ordenantza Orokor honek araututako diru laguntzek borondatezko izaera dute, ez dute ondorengo urteetarako beste diru laguntza batzuk lortzeko eskubiderik sortzen (urte anitzeko gastu gisa eman ezean), eta ezin dira aurrekari gisa alegatu.

Diru laguntzak emakidak baldintza gisa duen interes orokorreko helburua betetzeari atxikita daude, herritarren berdintasunean eragin positiboa bermatu behar dute eta ez-itzulgarriak dira, emakidaren unean ezarritako baldintzak eta kargak ez betetzeari atxikitako itzulketari kalterik egin gabe.

Edozein kasutan, Udala libre geratuko da diruz lagundutako pertsonek edo erakundeek egin behar dituzten jardueretatik sortutako erantzukizun zibiletatik eta merkataritzako, laneko edo edozein motako erantzukizunetatik.

II. TITULUA

ONURADUNAK ETA EUREN BETEBEHARRAK

*4. artikulua. Onuradunak.*

Diru laguntzen onuraduntzat joko dira laguntza hori ematea eragin zuen jarduera gauzatu behar duen, edo emakida legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona edo erakundea.

Egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Aizarnazabalen duten edo bere jarduerak iraunkorki bertan egiten dituzten pertsonek edo elkarteek eskuratu ahal izango dituzte diru laguntzak. Hala ere Aizarnazabaldik kanpoko pertsonen edo elkarteen jarduerak lagundu ahal izango dira, interes orokorrekoak badira.

Onuradun izan daiztezke pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, ondasun-erkidegoak edo, nortasun juridikorik ez izan arren,

— Aportaciones del Ayuntamiento, destinadas a financiar globalmente las actividades de los entes receptores: organismos autónomos; entidades públicas empresariales; consorcios; mancomunidades; fundaciones; asociaciones, etc. en los cuales está representado el Ayuntamiento y a los que anualmente, se hacen aportaciones económicas para financiar sus presupuestos.

— Subvenciones a favor de las asociaciones a que se refiere la Disposición Adicional 5.ª de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases de Régimen Local (Federación y Asociación de Municipios).

— Subvenciones a los grupos políticos representados en la Corporación para atender sus gastos de funcionamiento. Quedan excluidas las aportaciones a partidos y ediles.

Por otro lado, el ámbito de las subvenciones podrá extenderse a todos los departamentos y áreas municipales, entre otros, a las áreas de cultura, euskera, deportes, servicios sociales, juventud, medio ambiente y desarrollo rural, educación, participación, urbanismo, vivienda, igualdad, etc.

*Artículo 2. Normativa aplicable.*

La concesión de las subvenciones y la relación jurídica entre el órgano concedente y la entidad beneficiaria se regirán por la presente ordenanza municipal y las bases específicas reguladoras de cada una de las líneas de subvención y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

En todo lo no previsto en la presente ordenanza y las bases específicas se aplicará la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* de 18 de noviembre) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (*Boletín Oficial del Estado* de 25 de julio), y resto de disposiciones que resulten de aplicación, incluidas la Ley Orgánica 3/2007 de 30 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres y la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

*Artículo 3. Carácter de las subvenciones.*

Las subvenciones reguladas por la presente ordenanza general tienen carácter voluntario, no generan ningún derecho a la obtención de otras subvenciones en años posteriores (salvo que se hayan concedido con carácter de gastos plurianuales) y no se pueden alegar como precedente.

Las subvenciones están sujetas al cumplimiento de la finalidad de interés general a que se condicione el otorgamiento y tienen carácter no devolutivo, sin perjuicio del reintegro inherente al incumplimiento de las condiciones y cargas impuestas en el acto de concesión.

En cualquier caso, el Ayuntamiento y las entidades de él dependientes quedarán exentas de cualquier responsabilidad civil, mercantil, laboral o de cualquier clase derivada de las actuaciones a que queden obligadas las personas o entidades subvencionadas.

TÍTULO II

PERSONAS BENEFICIARIAS Y SUS OBLIGACIONES

*Artículo 4. Personas beneficiarias.*

Tendrá la consideración de persona beneficiaria de subvenciones la persona o entidad que haya de realizar la actividad que fundamentó su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitima la concesión.

Podrán optar a las subvenciones aquellas personas o asociaciones que tengan su sede o delegación permanente en el municipio de Aizarnazabal. Sin embargo, podrán ser subvencionables las actividades de personas o asociaciones no pertenecientes a Aizarnazabal, siempre y cuando sean de interés general.

Podrán acceder a la condición de persona beneficiaria las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o priva-

EK\CV GAO-I-2021-01299

proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzakeen, edo diru laguntza ematea eragin duen egoeran dagoen edozein ekonomia-unitate mota, betiere deialdi bakoitzean aurreikusten bada.

Onuraduna pertsona juridikoa denean, diru laguntza ematea eragin duten jarduera guztiak edo batzuk egiteko konpromisoa hartzen duten onuradunaren bazkideak, lehenengoaren izenean eta kontura, onuraduntzat joko dira.

Nortasunik gabeko pertsona fisikoen edo juridikoen, publikoen edo pribatuen elkarteak badira, laguntza emateko bai eskabidean bai ebazpenean, elkarteko kide bakoitzak hartutako eta gauzatutako konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko diru laguntzen zenbatekoa adierazi beharko dira espresuki.

Onuradun izango dira diru laguntza ematea eragin duen egoeran dauden edo deialdiaren oinarri arautzaileetan ezarritako inguruabarren bat betetzen duten pertsonak edo elkarteak.

Ezin izango dute diru laguntzarik jaso, indarrean den araudiari jarraiki, eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonek edo erakundeek. Halaber, ezin izango dute diru laguntzarik eskuratu behin betiko ebazpen bidez eskubide hori ebazpenak erabakitako epean galtzera zigortutakoek ere, edo Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenek.

*5. artikulua. Erakunde laguntzaileak.*

Honako hauek izango dira erakunde laguntzaileak: diru laguntzarekin loturiko ondorio guztietarako organo emailearen izenean eta beraren kontura arituz, pertsona onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkietenak, edota jasotako funtsak aldez aurretik eman eta banatu gabe diru laguntzaren kudeaketan laguntzaile dihardutenak. Funts horiek ez dira inola ere erakunde horien ondarearen parte izango. Erakunde laguntzaile izango dira, halaber, Europar Batasuneko araudiari jarraituz pertsona onuradun izendatu, eta aurreko idatz zatian azaldutako eginkizunak soil-soilik ezartzen zaizkien pertsonak.

Erakunde laguntzailetzat jo ahal izango dira honako hauek: gainerako administrazio publikoak; administrazio publikoak partaide bakarrak edo gehiengodunak dituzten merkataritzako sozietateak; zuzenbideko erakundeak; eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen elkarteak. Halaber, entitate laguntzaile izan ahalko dira gainerako pertsona juridiko publiko edo pribatuak, ezartzen diren kaudimen eta eraginkortasun baldintzak betetzen badituzte.

*6. artikulua. Pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrak.*

Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, oinarri berezietan jasotakoez gain, hauek dira:

a) Diru laguntzen emakida sortu duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izan.

b) Organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean eskakizunak eta baldintzak justifikatu, jarduera egin, eta diru laguntzaren emakidak edo gozamenak zehazten duten xedea bete.

c) Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortu.

das, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos, actividades o comportamientos o se encuentren en la situación que motiva la concesión de la subvención siempre que se prevea en cada una de las convocatorias.

Cuando la beneficiaria sea una persona jurídica, todo miembro asociado de la persona beneficiaria que se comprometa a efectuar la totalidad o parte de las actividades que fundamentan la concesión de la subvención en nombre y por cuenta de la primera, tendrán igualmente la consideración de beneficiaria.

Cuando se trate de agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sin personalidad, deberán hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos.

Podrán obtener la condición de persona beneficiaria las personas o entidades que se encuentren en la situación que fundamenta la concesión de la subvención o en las que concurran las circunstancias previstas en las bases reguladoras de la convocatoria.

No podrán acceder a la concesión de estas subvenciones aquellas personas o entidades que, en virtud de la normativa vigente, tengan limitado o suprimido ese derecho. Asimismo, no podrán obtener subvenciones quienes hayan sido sancionados, por resolución firme, con la pérdida del derecho por el plazo que determine la resolución o se encuentren en cualquiera de los otros supuestos señalados en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

*Artículo 5. Entidades colaboradoras.*

Será entidad colaboradora aquella que, actuando en nombre y por cuenta del órgano concedente a todos los efectos relacionados con la subvención, entregue y distribuya los fondos públicos a las personas beneficiarias cuando así se establezca en las bases reguladoras, o colabore en la gestión de la subvención sin que se produzca la previa entrega y distribución de los fondos recibidos. Estos fondos, en ningún caso, se considerarán integrantes de su patrimonio. Igualmente tendrán esta condición las que habiendo sido denominadas personas beneficiarias conforme a la normativa comunitaria tengan encomendadas, exclusivamente, las funciones enumeradas en el apartado anterior.

Podrán actuar como entidades colaboradoras el resto de Administraciones Públicas, las sociedades mercantiles participadas íntegra o mayoritariamente por las Administraciones Públicas, los organismos o entes de derecho público y las asociaciones a que se refiere la Disposición Adicional Quinta de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local. También podrán ser entidades colaboradoras las demás personas jurídicas públicas o privadas que reúnan las condiciones de solvencia y eficacia que se establezcan.

*Artículo 6. Obligaciones de la persona o entidad beneficiaria.*

Son obligaciones de la entidad o persona beneficiaria, además de las recogidas en las correspondientes bases específicas:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.

b) Justificar ante el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.

c) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.

d) Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, eta baita kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende ere, aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekarrita.

e) Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Aizarnazabalgo Udalarenak egunean dituela egiaztatu. Kasuan kasu, erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, erantzukizuneko aitorpena aurkeztu ahal izango da, besteak beste, kasu hauetan:

1. Espresuki lanbide-hezkuntzako prestakuntza-ekintza arautuak eta heziketa-ikastetxe publiko edo pribatuetako prestakuntza finantzatzeko ikasleei emandako bekak eta gainerako diru laguntzak.

2. Onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoak deialdian 3.000 euroko kopurua gaindizen ez duten laguntzak.

3. Aizarnazabalgo Udalaren organo eskudunak diru laguntzaren izaera, araubidea edo zenbatekoa direla-eta, behar bezala justifikatutako egoerak gertatzeagatik ezartzen dituenak.

4. Administrazio Publikoei eta horien mendeko sektore publikoko erakunde, organismo eta fundazioei emandako diru laguntzak, non eta oinarri berezietan espresuki aurkakoa aurreikusten ez den.

5. Irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta horien federazio, konfederazio edo elkarteei gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko eskaintzen zaizkien diru laguntzak.

6. Gainerako kasuetarako, pertsona edo erakunde eskatzaileak eskaeran organo emaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena erantsi ahal izango du, eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien ziurtagiriak ekarri beharko.

7. Aizarnazabalgo Udalaren zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko, nolanahi ere 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 53. artikuluan hala onartzen duenez, hiritarrek eskubidea dute Administrazioaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko, eta beraz, tokiko erakundeak berak espedienteari erantsiko zaion ziurtagiri bat igorriko du.

f) Kontabilitate-liburuak, erregistro bideratuak eta kasu bakoitzean onuradunari aplikatzekoa den merkataritza- eta sektore-legeriak eskatutako baldintzetan behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak eduki, eta baita diru laguntzen oinarri bereziek egiaztapen- eta kontrol-ahalmenen jardun egokia bermatzeko eskatzen dituzten kontabilitate-egoerak eta berariazko erregistro guztiak ere.

g) Hartutako fondoen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jardunen aztergai izan daitezkeenez, lau urteko epean gorde.

h) Organo emaileari, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazional zein nazioartekotatik diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste diru laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu izana jakinarazi.

i) Diru laguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.

j) Ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan jasotako fondoak itzultzeari ekin.

d) Someterse y colaborar en los términos de la legislación vigente a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

e) Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y del Ayuntamiento de Aizarnazabal. La presentación de declaración responsable sustituirá a la presentación de las certificaciones de los correspondientes organismos, entre otros, en los siguientes casos:

1. Las becas y demás subvenciones concedidas al alumnado que se destinen expresamente a financiar acciones de formación profesional reglada y en centros de formación públicos y privados.

2. Aquellas en las que la cuantía a otorgar a cada persona beneficiaria no supere en la convocatoria el importe de 3.000 euros.

3. Aquellas que por concurrir circunstancias debidamente justificadas, derivadas de la naturaleza, régimen o cuantía de la subvención, establezca el órgano competente el Ayuntamiento de Aizarnazabal.

4. Las subvenciones otorgadas a las Administraciones Públicas, así como a los organismos, entidades públicas y fundaciones del sector público dependientes de aquéllas, salvo previsión expresa en contrario en las bases específicas de la subvención.

5. Las subvenciones destinadas a financiar proyectos o programas de acción social y cooperación internacional que se concedan a entidades sin fines lucrativos, así como a federaciones, confederaciones o agrupaciones de las mismas.

6. Para el resto de casos, la persona o entidad solicitante podrá incluir en la solicitud la autorización para que el órgano concedente obtenga de forma directa la acreditación del cumplimiento de las mencionadas obligaciones a través de certificados telemáticos, en cuyo caso no deberá aportar las correspondientes certificaciones.

7. Para la acreditación de la obligación de estar al corriente de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Aizarnazabal y como quiera que el artículo 53 de la Ley 39/2015 reconoce el derecho de la ciudadanía a no presentar documentos que ya se encuentren en poder de las Administraciones, la propia entidad local emitirá certificación, la cual se incorporará al expediente.

f) Disponer de libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases específicas de las subvenciones con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

g) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, durante un plazo de cuatro años.

h) Comunicar al órgano concedente, en su caso, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la actividad subvencionada, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales.

i) Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

j) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos previstos en la presente ordenanza.

EK\CV GAO-I-2021-01299

k) Diruz lagundutako jardueraren hedapen-ekintzetan, jasota geratu beharko du Aizarnazabalgo Udalaren diru laguntza bidezko lankidetzak.

i) Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.

*7. artikulua. Hizkuntza irizpideak.*

Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Hala ere, diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion hizkuntza irizpide berezituak zehaztuko dira.

*8. artikulua. Berdintasun irizpideak.*

Pertsona onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea.

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran honako printzipio orokorrak bete beharko ditu:

a) Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian.

b) Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatzea.

c) Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.

d) Proiektu eta memorietan sexuagatik desagregatutako datuak erabiltzea.

Diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion berdintasun irizpide bereziak zehaztuko dira.

*9. artikulua. Ingurumen irizpideak.*

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

a) Aurrezte eta energia eraginkortasuna.

b) Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.

c) Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).

d) Mugikortasun iraunkorra sustatzea.

e) Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehienezko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion ingurumen irizpide bereziak zehaztu ahal izango dira.

III. TITULUA

DIRU LAGUNTZEN PROZEDURA ETA KUDEAKETA

*10. artikulua. Printzipio orokorrak.*

Ordenantza Orokor honek aipagai dituen diru laguntzen kudeaketa printzipio hauen arabera egingo da:

a) Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.

b) Efikazia, Administrazio emaileak finkatutako helburuak betetzerakoan.

k) En las acciones de difusión de la actividad subvencionada deberá hacerse constar la colaboración, mediante subvención, del Ayuntamiento de Aizarnazabal.

l) En el ejercicio de la actividad se observará el debido respeto a los derechos fundamentales de la persona y se respetará la legalidad vigente.

*Artículo 7. Criterios lingüísticos.*

Las relaciones tanto orales como escritas que mantenga la entidad beneficiaria con el Ayuntamiento serán en euskera.

La entidad beneficiaria deberá redactar y dar a conocer con carácter general en euskera los escritos, anuncios, avisos y demás comunicaciones que se publiquen en la actividad subvencionada, debiendo proceder de igual manera con la publicidad, bien sea oral o escrita. La convocatoria de cada línea de subvención o el convenio correspondiente establecerá los criterios lingüísticos específicos correspondientes a cada tipo actividad.

*Artículo 8. Criterios de igualdad.*

La persona beneficiaria deberá respetar cuanta normativa vigente le resulte de aplicación. En especial, la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y de Hombres.

La entidad beneficiaria en la actividad subvencionada deberá cumplir los siguientes principios generales:

a) Uso de un lenguaje inclusivo e imagen no sexista en todos los documentos, soportes y rotulaciones.

b) Garantía de incidir positivamente en la igualdad.

c) Integración de perspectiva de género y de criterios de paridad en los proyectos.

d) Utilización de datos desagregados por sexo en proyectos y memorias.

La convocatoria de cada línea de subvención o el convenio correspondiente establecerá los criterios de igualdad específicos correspondientes a cada tipo actividad.

*Artículo 9. Criterios medioambientales.*

La persona o entidad beneficiaria de la subvención con carácter general tendrá en cuenta la adopción de criterios medioambientales en las siguientes materias:

a) Eficiencia y ahorro energéticos.

b) Gestión y recogida selectiva de las diferentes fracciones de residuos, además de la prevención en su generación.

c) No generar afecciones a la diversidad local (hábitats naturales, especies y procesos ecológicos).

d) Impulsar una movilidad sostenible.

e) La no emisión de ruidos que superen los límites máximos establecidos por la legislación vigente y garantía de calidad acústica con respecto a la ciudadanía y el medio ambiente.

La convocatoria de cada línea de subvención o el convenio correspondiente podrá establecer los criterios medioambientales específicos correspondientes a cada tipo actividad.

TÍTULO III

PROCEDIMIENTO Y GESTIÓN DE LAS SUBVENCIONES

*Artículo 10. Principios generales.*

La gestión de las subvenciones a que se refiere la presente ordenanza general se efectuará de acuerdo con los siguientes principios:

a) Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.

b) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la Administración otorgante.

EK\CV GAO-I-2021-01299

c) Efizientzia, baliabide publikoak esleitzerakoan eta erabiltzerakoan.

Diru laguntzak 15. artikuluan aipatzen diren prozedura motak jarraituz emango dira.

*11. artikulua. Diru laguntzen zenbatekoa.*

Diru laguntzaren zenbatekoak, beste Administrazio publiko batzuek helburu berarekin emandako diru laguntzekin batera, ezin izango du diruz lagundutako obraren edo jardueraren kostua gainditu.

Ezin izango da deialdian zehazten dena baino zenbateko handiagoko diru laguntzarik eman, Legea garatzeko Erregelamenduan aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

*12. artikulua. Diruz laguntzeko gastuak.*

Lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, diruz lagundutako gastuak dira: diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten dioten horiek eta diru laguntzen oinarri bereziek ezarritako epean egiten direnak.

Egindako gastutzat joko da diru laguntza arautzen duen araudiak zehaztutako justifikazio-epea amaitu aurretik ordaindu dena.

Diruz laguntzeko gastuaren zenbatekoak honako mugak gainditzen baditu (BEZ kanpo), onuradunak gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik:

— Obrak egiteko kostuaren kasuan 3.000 euroko zenbatekoa gainditzen duenean.

— Ekipamendu-ondasunez hornitzeko edo aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzuak emateko kasuan 3.000 euroko zenbatekoa gainditzen duenean.

Hautaketa hori efizientzia eta ekonomiako irizpideen arabera egingo da.

Honako kasuan baino ez da hiru eskaintza eskatzea beharrezkoa izango:

— Diruz laguntzeko gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan zerbitzu hori hornitzen edo ematen duten nahikoa erakunde ez baldin badaude.

*13. artikulua. Aurrekontua kontsignatzea.*

Diru laguntzak gastu publikotzat joko dira eta horien eragingarritasuna deialdi bakoitzean aurreikusten den nahikoa aurrekontu-kreditu eta egokia egoteari baldintzatuta geratuko da.

Diru laguntzen emakidatik sortutako eduki ekonomikoko betebeharrak artatzeko aurrez aurrekontuen aldaketa bat behar bada, dagokion espedientea abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuena, edo une bakoi-tzean indarrean dagoen araudiak ezarritako moduan izapidetuko da.

*14. artikulua. Finantziazioaren muga, bateragarritasuna eta aldiberekotasuna beste diru laguntza batzuekin.*

Udalak araudi hau betez emandako diru laguntzak bateragarriak izango dira edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin.

Aurreko kasuan, onuradunak jakin bezain laster jakinarazi beharko dio organo emaileari diru laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek lortu izana, eta nolanahi ere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

c) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.

Las subvenciones se concederán de acuerdo con los tipos de procedimientos señalados en el artículo 15.

*Artículo 11. Cuantía de las subvenciones.*

El importe de la subvención, junto con el de las subvenciones concedidas con la misma finalidad por otras administraciones públicas, no podrá sobrepasar el coste de la obra o actividad subvencionada.

No podrán otorgarse subvenciones por cuantía superior a la que se determine en la convocatoria, salvo excepciones contempladas en el Reglamento de desarrollo de la Ley.

*Artículo 12. Gastos subvencionables.*

Se considerarán gastos subvencionables, a los efectos previstos en esta norma, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, y se realicen en el plazo establecido por las diferentes bases específicas de las subvenciones.

Se considerará gasto realizado el que ha sido pagado con anterioridad a la finalización del período de justificación determinado por la normativa reguladora de la subvención.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere los siguientes límites (IVA excluido), la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien:

— Cuando el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 3.000 euros en el supuesto de coste por ejecución de obra.

— O de 3.000 euros en el supuesto de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica.

La elección se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía.

Solo en este caso no será necesario solicitar tres ofertas:

— Cuando por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten.

*Artículo 13. Consignación presupuestaria.*

